

Ekainera bitarte, kultur egitarau «indartsua» prestatu dute

Lehen sei hilekorako antzerki, haur ikuskizun, musika, bakarrizketa edo dantza emanaldiekin egitaraua osatu du Tolosako Udalak; eszena eta zine bonuak eskuragarri daude // 2

«Erakundeetatik ez da behar den larritasunarekin erantzuten»

JULEN ZELARAIN
13/13 EPAIKETA

13/13 auzian bere kontrako akusazioa erretiratu zuten; herritarren babesa nabarmendu du, eta elkartasun bertso saiora joateko deia luzatu du // 5

Tolosaldea IKT bigarren postuan geratu da, Euskal Herriko Kopan

Gizonezkoetan lehen postua lortu dute, eta emakumezkoetan hirugarren postua; distantzia luzean ere maila ona erakutsi dute eskualdeko igerilariak // 7



JOSU ARTUTXA

«Beharrezkoa da denen memoria, gertatu denaz jabetzeko»

JAVIER BUCES ARANZADIKO IKERTZAILEA

Gertuko memoriari edo euskal gatazkari buruzko testigantzak biltzen ari da Aranzadiko ikerlaria; datorren urtean bilketa egin eta gero, Tolosako memoriaren trilogiari amaiera emango dion liburua argitaratuko dute // 3



GABONETAKO EKINTZAK

Abenduak 27, 28, 29, 30

**Irudimen eta arte tailerrak • Munduko jolasak
Zirko tailerra • Ipuin kontalariak**



Informazio gehiago:
@oriamekarielkarteak
@oriamekarielkarteak



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

Exekutibo, argitaratzaile, lehen orria



Urte berria hasterako kultur agenda prestatu dute Tolosan

Ekainera bitarteko kultur eskaintzaz gozatzeko, eszena bonuak eskuragai jarri dituzte; hamar saiotarako bonuak 50 euro balio du eta saio bakoitzerako bi sarrera erabil daitezke

Irati Saizar Artola

Datorren urteko kultur agendari begira jarri da Tolosako Udala, eta lehen sei hilekorako prestatu dutena aurkeztu dute. Izarne Iglesias kultura zinegotziak esan duenez, «2022 urteari hasiera behar bezala emateko, kultur egitarau indartsua» antolatu dute.

Programazioa aurkeztu badute ere, ikuskizun horiez gain gehiago ere izango direla aurreratu du Iglesiasek. Momentuz, antzerkia, haur ikuskizunak, musika emanaldiak, bakarriketak, dantza eta beste hainbat ikuskizunetarako aukera izango

da, Leidor aretoan zein Topic zentroan. Artista eta talde ezagunak gerturatuko dira Tolosara: besteak beste, Ruper Ordorika, Oscar Terol, Haatik dantza konpainia edota Ismael Serrano. Atzo egindako aurkezpenean Ados teatroko Ainhoa Aierbe aktoreak eta Haatik dantza konpainiako Aiert Beobidek hartu zuten parte.

Ikuskizunetarako sarrerak dagoeneko salgai daude Kutxaban-ken webgunean edo Leidorreko leihatilan, eta eszena bonuak ere eskuratu daitezke. Eszena bonuak udalak antolatutako ikuskizunetarako 10 sarrera deskon-

tuarekin eskuratzeko aukera ematen du eta saio bakoitzerako bi sarrera erabili ahalko dira gehienez bonu beretik. 10 saiotarako bonuak 50 euroko prezioa izango du, eta hortaz, sarrera bakoitza erdi prezioan eskuratuko da.

Horrez gain, zine bonuak ere eskuragarri daude dagoeneko, eta ohiko moduan, 2022ko urtarilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte erabili ahal izango dira. Orain arte bonu horiek helduentzako filmetarako soilik ziren baliagarriak, baina, abendutik aurrera, haurrentzako filmetarako ere balioko dute.



Atzo eguerdian aurkeztu zuten kultur programazioa, kultur etxean. I.S.A.

KULTUR AGENDA

Urtarrilak 4

18:00. Gabonak Gabon, Kiliklonen eskutik, Leidorren.

Urtarrilak 8

12:30 eta 16:30. Go!azen, Leidorren.

Urtarrilak 14

20:30. Islak, Mikel Azpirozaren eskutik, Topic-en.

Urtarrilak 21

20:30. Gu primer! antzezlan, Leidorren.

Urtarrilak 22

18:00. Ataria bertso jaialdia, Leidorren.

Urtarrilak 23

12:00. Erdi aroko ipuin magikoa

ikuskizuna, Oliver Magoaren eskutik, Leidorren.

Urtarrilak 28

20:30. Kopaz kopa, Ados teatroaren eskutik, Leidorren.

Otsailak 5

18:00. Perez sagutxo, Gluglu teatroaren eskutik, Leidorren.

Otsailak 11

20:30. Ruper Ordorika, *Amour eta toujours* disko berriarekin, Leidorren.

Martxoak 4

20:30. Oscar Terol, Leidorren.

Martxoak 11

20:30. Ur bizitan ikuskizuna, Haatik

dantza konpainiaren eskutik, Leidorren.

Martxoak 18

20:30. Kutxidazu bidea, Ixabel musikala, Demode Quarteten eskutik, Leidorren.

Martxoak 25

20:30. Lehendakari gaia, Txalo produkzioaren eskutik, Leidorren.

Apirilak 1

20:30. Euskal danbokunaren aroak, Piter Ansorena eta Joserra Senperenaren eskutik, Leidorren.

Apirilak 8

20:30. Arima, Amaia Elizaranen eta Liam O'Maonlaian eskutik, Leidorren.

Apirilak 9

Bisaio. Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

Apirilak 20

20:30. Abraham Cupeiro Trioren kontzertua, Tolofolk jaialdiaren barruan, Topic-en.

Apirilak 22

20:30. Xabi Aburruzaga Band, Tolofolk jaialdiaren barruan, Leidorren.

Apirilak 29

20:30. Lof-ladies on fight ikuskizuna, Eva Guerreroren zuzendaritzapean, Leidorren.

Apirilak 30

18:00. Leihoak, Teatro paraisoren eskutik, Topic-en.

Maiatzak 6

20:30. Ismael Serranoren kontzertua, Leidorren.

Maiatzak 13

20:30. Duke Ellingtonen kontzertu sakroa, Musikene Big Banden eskutik, Leidorren.

Maiatzak 20

20:30. Verso a verso errezitaldia, Charo Lopezen zuzendaritzapean, Leidorren.

Ekainak 11

2 saio. Dantza tailerreko kideen emanaldia, Leidorren.

Ekainak 17

20:00. Antzerki tailerreko kideen emanaldia, Leidorren.

ATARIA BERTSO JAIALDIA 2022

Urtarrilak 22, larunbata, 18:00etan, Tolosako Leidor antzokian


Oihana Iguaran
Maialen Lujanbio
Ametis Arzallus
Andoni Egaña
Nerea Ibarzabal
Iker Zubeldia

Gai jartzailea:
Amaia Agirre

Antolatzaileak:
Ataria
Babesleak:
MARITZU, galtzaundi, TOLOSA

- Sarrerak zenbakituak izango dira eta ez da erreserbarik onartuko.
- Atariako egoitzan egongo dira salgai, San Esteban 20, Tolosa.
- Atarikideak 15€tan, gehienez bi sarrera.
- Besteek 17€tan.

SARRERAK EROSTeko EGUTEGIA:
Gainontzekoentzat: abenduak 22: 16:00 – 19:00



J. ARTUTXA

«Tolosan gertatutakoaren erradiografia bat lortu nahi dugu»

JAVIER BUCÉS
ARANZADI ELKARTEKO IKERTZAILEA

Azken 40-50 urteetan, Tolosan historikoki gertatu denaren testigantzak biltzen ari da Javi Bucés ikerlaria; «orain biltzen ez baditugu, etorkizunean ez dira existituko», adierazi du

Josu Artutxa Dorronsoro

Aranzadi Zientzia Elkarteak hamarkada bat baino gehiago darma Tolosan oroimen historikoa berreskuratzeke lanean. Pasa den urtean, *Tolosaoroimena.eus* webgunea aurkeztu zieten herritarrei. Aurtun, berriz, deialdi berria luzatu dute, gertuko memoriari edo euskal gatazkari buruzko testigantza eske.

Zein testigantza mota bildu nahi duzue zehazki?

Batez ere, biktimen testigantzak, edo biktimen senideenak. Dokumentazio historiko edota artxi-boetan informazio ugari biltzen dugu; era guztietako urraketak azaltzen dira, pisu handikoak. Hala ere, urraketa guztiak ez daude paperean idatzita. Errepresio handia dago, eta hori dokumentatzeko modu bakarra dira testigantzak.

Gertuko memoriari erreparatu nahi diozue, ezta?

Bai. Gerra Zibiletik Frankoren heriotzara bitarteko epeari oroimen historikoa deitzen zaio; frankismoaren amaieratik gaur egunera artekoari, berriz, gertuko memoria. Ni ez nago guztiz ados. Erosotasunagatik erabiltzen ditugu termino horiek, baina azken finean, euskal gatazkaz ari gara, gatazka politikoaz, sufrimenduaz, torturez, estortsio ekonomikoaz, mehatxu larriez edota erailketez.

Herritar orok parte hartu dezake?

Oreka mantendu nahi dugu. Ez dugu memoria partzialki bildu nahi, osorik baizik. Herritar guztiak gure herrian gertatu denaz jabetu daitezzen, beharrezkoa da denen memoria. Testigantza ezberdinak behar ditugu, Tolosan gertatu denaren erradiografia

bat lortzeko. Askotan aipatzen dira nazioarteko hiru printzipioak: egia, justizia eta erreparazioa. Bada, ikertzaileok, egia bilatzeko lan egiten dugu; erreparazioa eta justizia beste maila batean daude. Kasu honetan, gainera, beharrezkoa da egia osoa lortzea.

Jada hasi zarete herritarren ekarpenak biltzen?

Bai. Hala ere, aitortu behar dut nahiko genukeena baino mantsago doala prozesua. Webgunean aurkitu daiteke informazio osoa: biktimen izenak, datuak, testigantzak... eta bertan egin daitezke ekarpenak.

Ezinbestekoa da testigantzak jasotzea; orain biltzen ez baditugu, etorkizunean ez dira existituko. Ez da ariketa batere samurra. Herritar asko beti daude prest informazioa emateko, baina gehienak ez dira pauso hori ematera ausartzen. Gure aldetik, konfidentzialtasun osoa gordetzen dugu; nahi duenak, izenik eman gabe egin ditzake ekarpenak.

Lehen pauso hori ematea zaila dela esan duzu. Zergatik?

Herri guztietan daude pertsona gako batzuk, gertukoak edota ezagun baten ezagunak direnak. Horrelakoetan, oso garrantzitsua izaten da alor ezberdinetan mugitzea. Hala ere, gutxi izaten dira gugana gerturatzen direnak, eta askotan, gu izaten gara euren bila joan behar izaten dugunak. Bakarren bat akaso ausartzen da hitz egitera, eta hori gertatzen denean, errazagoa izaten da gainerako guztiak atzetik etortzea.

Eta zer jaso duzue orain arte?

Horrelako ariketa bat egiten dugunean, xehetasun batek harritzen nau gehien: herritarrek ez dute amorrurik. Euren esperientziak kontatu nahi dituzte, gainerakoek beraiek sufritutakoaren berri izan dezaten.

Noiz arte bilduko dituzue testigantzak?

Ez dago eperik. Horrelako prozesuek, behar bezala egiteko, denbora tarte luzea eskatzen dute, eta beraz, datorren urte osoan zehar bilduko ditugu.

Zertarako erabiliko dituzue jasotako ekarpenak?

Azken liburu bat argitaratu nahi dugu, hirugarrena, herri honetan zer gertatu den ezagutzera emateko. Honekin, amaiera emango diogu Tolosako memoriaren trilogiari.

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.



Miren harategiko langileak txapelarekin eta oroigarriarekin. J. ARTUTXA

Euskal Herriko txistorra onena, Tolosako Miren harategikoa

Pasa den astean, Ordizian jokatu zen lehiaketa irabazi zuen Miren harategiak; atzo, Santo Tomas egunez, urtebete bete zen Tolosan denda berria ireki zutela

J. Artutxa Dorronsoro

Atzo urtebete bete zen Tolosako Miren harategiak Nafarroa Etorbideko 15. zenbakian duen denda berria zabaltu zuenetik. Pasa den astean, berriz, Euskal Herriko 23. txistorra lehiaketa irabazi zuen, Ordizian. 54 ekoizlek hartu zuten parte, eta tolosarrek jaso zuten puntuazio altuena: 59,5. Lehen aldia zen lehiaketara aurkeztu zirela, eta beraz, «ezusteko handia» izan zen beraientzat.

Lehiaketa irabaztearen ondorio handiena, ekoizpenean nabaritu dute. «Egunean lau kilo txistorra egitetik, 40 kilo egitera

pasa gara», aitortu du Miren Pagolak. Eskerak ere nonahitik jaso dituztela esan du: «Bilbotik, Donostiatik edota Madrilatik ere etorri dira txistorra erostera, baita inguruko herri txikietatik ere». Orain, gainera, herritar ugari ari da gerturatzen Gabonetarako erosketak egitera. «Askok azken unera arte ari dira itxaroten».

Pagolaren ustez, txistorra bat ona izan dadin, badira «ezinbestekoak» diren zenbait baldintza: «Lehengai onak izatea eta horien konposaketa neurrikoa izatea; ahalik eta naturalena izan dadila. Horrez gain, mimo pixka batekin egina bada, hobeto».



**2022ko
MAHAI
EGUTEGIAK
ESKURAGARRI**

PASA ZAITEZ BILA

San Esteban auzoa, 20, Tolosa

Tolomendik Auzolangin(l)tza proiektuaren barruan galdetegia zabaldu du eskualdeko elkarte, eragile eta mugimendu ezberdinei zuzenduta; Tolomendiren webgunean bete daitekeen galdetegia da, eta betetzen dutenen artean bertako produktuen saski eder bat zozkatuko dute; Noelia Lataburu Ortiz eta Xabier Artola Zubillaga dira bete dutenetako bi.

«Herri txikietan auzolan mota hau gabe ez litzateke bizitzarik egongo»

NOELIA LATABURU ORTIZ
HERRITARRA

E. Maiz Irura

Noelia Lataburu Ortiz irurarra auzolan mota ezberdinetan ari-tzen da herriari begira, eta Tolomendiren galdetegian bere ekarpena egin nahi izan du.

Zergatik bete duzu Tolomendik zabaldu duen galdetegia?

Ekimena interesgarria iruditu zait, eta garrantzitsua iruditzen zait honelako esperientziak biltzea. Nire kasuan udala ere izan zitekeen, baina Irura Moretuz elkartearen gainean baino ez dut bete galdetegia.

Erraza izan da galdetegia bete-tzea?

Bai. Oso motza da, eta hiruzpau minututan betetzen duzu.

Zein da zuk Iruran egiten du-zun auzolan mota hori?

Irura Moretuz jaio berria den elkarte da. Batez ere feminismoaren sustapenerako sortutako elkarte da. Emakumeen ahal-duntzea, emakumeen lanen memoria historikoa berreskuratzeke, etab... Horren harira hainbat ekimen antolatzen ditugu urtean zehar. Azaroak 25 eta martxoaren 8tik harago antolatzen ditugu ekitaldiak. Jabetze eskola bat ere martxan jarri da, eta aurren, esaterako, hiru ekital-



di antolatu ditugu eta datorren urtean beste hainbeste antolatzeke asmoa daukagu.

Zein da guzti horretan zure parte hartzea edo zure auzolana?

Herriko emakume pila batez osatutako taldea da Irura Moretuz, baina elkartearen badago gidaritza lana egiten duen talde eragile bat eta ni talde horretako kide naiz. Lau emakumek osatzen dugu taldetxo hori, eta ni

horietako bat naiz. Gainerakoan, talde mailan, parte hartzea, antolatzea eta guztiaz arduratzea izango litzateke nire parte hartzea edo auzolana.

Garrantzitsua iruditzen zaizu auzolan mota hauek gizarteratzea, biltzea, bultzatzea?

Badirudi auzolana herri bideak garbitzera mugatzen dela, eta azkenean jende pila bat dago herrietan lanean. Sinisten dugun alderdi edo esparru horietan la-

nean aritzen gara herriari ekarpen hori egiteko. Gure kasuan, erabat herritik sortutako mugimendua izan da. Zerotik abiatu ginen. Hemen ez zegoen ezer antolatuta, eta herriko emakumeok bagenuen halako kezka, grina edota gogoia zerbait egin eta bultzatzeko. Hortik sortu zen. Esparru honez gain, beste asko ere badaude, eta jende pila bat dago hor lanean sinesten dugun hori herriari eskaintzeko. Beraz, garrantzitsua iruditzen zait lan horiek azaleratzea. Alde batetik, jendeak horien berri izan dezan, eta bestetik, betiko auzolanaren ikuspegi horrekin apurtzeko.

Auzolan horiek mantentzen dituzte herriak bizirik?

Dudarik gabe. Azkenean, iruditzen zait herri txikietan auzolan mota hau gabe ez litzatekeela bizitzarik egongo.

«Auzolanak herria egiten duela uste dut»

XABIER ARTOLA ZUBILLAGA
HERRITARRA

E. Maiz Alkiza

Xabier Artola Zubillaga Alkizan bizi da eta Tolomendik zabaldu duen Auzolangin(l)tza galdetegia bete du.

Zergatik bete duzu galdetegia?

Edurne Ayuso Alkizako kultur teknikariak esan zidan ea beteko ote nuen, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan ekimena. Baietz esan nion, nik nekiena behintzat beteko nuela, edo nik parte hartutako ekimen edo ekitaldi horietakoa behintzat kontatuko nuela.

Erraza izanda erantzutea?

Bai. Zerbait kontatzeko baldin baduzu erraza da.

Zein izan da zuk Alkizan egin duzun auzolan mota edo zer kontatu duzu?

Egia esan urte batzuk badira jada egin zela. Agian azkena egin zela izango dira zortzi edo bederatzi urte. Lanbide zaharrak berreskuratzeke lan batzuk egin ziren. Adibidez, txerri festa bat egin zen, txondorra, garo meta bat eta sagardogintza ere bai. Ez zen bakarrik txondorra egitea izan. Hamar egunez han ibili ginen txondorraren inguruan, edo sagardarena egin zenean, lehenengo sagarrak biltzera joan ginen, gero sagarra jo eta hori guztia



plazan egin zen. Txerri festa beste horrenbeste eta garo meta ere bai. Eta hor eskolak parte hartzen zuen eta baita herriko jende askok ere.

Eta guzti hori auzolanean egiten da?

Hori da. Auzolanean egin zela esan daiteke. Eta nik uste dut azpimarratzekoa dela ere zenbat jendek parte hartzen zuen. Gero, egia da, gorabeherengatik utzi egin zitzaiola hori egiteari. Azke-

neko urteetan ez da halakorik berriz egin. Lan horietan oso inportantea zen dokumentazioa, hau da, hor egiten zen guztia dokumentatu egiten zen, bideoen edota argazkien bitartez. Hori hor gelditu zen, eta txondorrari buruzko liburu bat ere atera zen, argazki liburua, hori argitaratu egin zen, eta gainontzeko guztiak hemen gelditu ziren, herrian bertan egindako erakusketak batzuetan.

Auzolan horietan zein zen zure parte hartzea?


Hain zuzen ere ni argazkilaria edo argazki zalea naiz, eta batez ere argazki lana egiten nuen. Jar-duera guztietan hor egoten nintzen eta argazkiak egiten nituen, eta gero erakusketak eta prestatzen nituen.

Garrantzitsua iruditzen zaizu auzolan hauek gizarteratzea, mantentzea, berreskuratzea?

Noski, inportantea iruditzen zait. Nik uste dut auzolanak herria egiten duela. Baina beste aldetik ikusten dut gaur egungo bizimoduak pixka bat auzolanetik aldenitu egiten gaituela. Nola baiteko bizimodu indibidualistago batean sartuta gaude, eta gero eta zailago ikusten dut gauza hauek aurrera eramatea. Osoo garrantzitsua iruditzen zait, baina ez dakidana da nola bultzatu honelako jardunak.

Gabon parkea Ibarako San Bartolome plazan abenduaren 28an

(11:00-13:00 eta 15:00-18:00)



Sutarako egurra banatuko da herriko bizilagunen artean

AMASA-VILLABONA // Gipuzkoa-ko Foru Aldundiaren mendi sailak Oindollar inguruan dagoen haritz amerikarren landaketan soiltze lanak egin ditu aurtengo udazkenean. Amasa-Villabona-ko Udalak bertan geratu den egurra mendi pistara aterako du herriarren artean banatzeko. Aipatutako egur hori eskuratzeko interesa dutenek aurrez izena eman beharko dute ingurumena@villabona.eus helbidera mezu bat bidalita edo Villabona-ko udaletxeko HAZn.

Porrotx eta Marimototsen emanaldia, atzeratua

AMASA-VILLABONA // Porrotx eta Marimototsen *Zorionak Marimotots!* ikuskizuna ezin izango dute abenduaren 23an egin. Saioa martxoaren 11ra atzeratuko da eta bi saio izango dira, 17:30ean eta 19:30ean. Abenduaren 23ko emanaldietarako erositako sarrerak martxokoetarako balioko dutela jakinarazi du udalak. Hala ere, sarreraren dirua itzultzea nahi dutenek mezu bat idatzi beharko dute kultura@villabona.eus helbidera abenduaren 30a baino lehen.



J.M.

«Lasaitua hartu dut baina hor utzi ditudan kideekiko kezka dut»

JULEN ZELARAIN 13/13 EPAIKETAN AUZIPETU OHIA

Asteasuko Usarrabi kiroldegian igandean egingo den elkartasunezko bertso saiorako deia luzatu du; 13/13 auzian epaitutakoei babesa helarazteko balioko du ekitaldiak

Jon Miranda

Azaroan amaitu zen 13/13 auziko epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalan. Sumariotik atera duten Julen Zeralainek (Amasa-Villabona, 1967) kezka azaldu du etorri daitekeenagatik.

Espero al zenuen zure aurkako akusazioa erretiratzea?

Beti esan izan dut, nire kontrako

akusazioa egiteko elementurik ez dutela izan, baina Auzitegi Nazionalera joaten zaren bakoitzean ez duzu jakiten nola bukatu dezakezun. Nire kideekin berdina gertatzen da, oinarririk ez dute haien aurka baina oraindik fiskalak mantentzen ditu akusazioak. Nire egoera pertsonala hobetu da, lasaitua hartu dut, baina hor utzi ditudan lagun eta nirekin preso-

BERTSO SAIOA ASTEASUN

Abenduak 26, igandea

12:00. Amets Arzallus, Alaia Martin, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Oihana Iguaran. Gai jartzailea: Amaia Agirre. Sarrerak 12 euroan salgai. Asteasuko Patxinen eta Iturriondor; Zizurkilgo Iriarten; Villabonako Iratzarren eta Amasa Kafetegian.

en aldeko mugimenduan aritu diren kideekiko kezka dut. Espetxetik atera nintzenean ere sentsazio berdina izan nuen.

Etorri daitekeen sententziaren inguruko zantzurik baduzue?

Ez dakigu ezer. Kezkagarria iruditu zitzaigun epaiketaren amaieran fiskalak esandakoa, bere eskaerak justifikatzeko, ETA oraindik ez dela desagertu esan zuen. Adierazpen horiek erakusten dute zigorrak justifikatzeko aurreko egoeretara bueltatzea bilatzen dutela.

Erakundeen partetik jaso al duzue babesik?

Oro har irakurketarekin bat datoz eragile guztiak. Esaten digute lekuz kanpo dagoela epaiketa hau eta ez dela herri honentzat mesedegarria. Baina, era berean, iruditzen zaigu instituzioetatik ez zaiola gaiari beharrezkoa den larritasunarekin erantzuten. Badi-rudi normaltzat hartzen direla tortura testigantzak edota abokatu- en bulegoetan ilegalki sartzea. Iruditzen zaigu instituzioek iraganeko agertokietara bueltatzeko saiakerak daudenean, lidergo bat asumitu beharko luketela horrelako errealitateei aurre egiteko. Horren falta sumatu dut.

Eta kalean izan den erantzuna nola baloratzen duzue?

Auzi honetatik ateratzen dugun gauzarik baikorrena da. Niri jende asko gerturatu zait elkartasuna adieraztera. Gustatuko litzaidake zenbait instituzioetako ardura-dunek konpromiso horren laurdena erakutsi izan balute. Laurdenarekin bakarrik nahikoa litzateke herri hau beste agertoki batera eramateko.



JOSTAILU BILKETA EGINDU GAZTE ASANBLADAK

Onddo Gazte Asanbladak jostailu bilketa egin du azken asteetan Eguberrietan herrian haurrik gera ez dadin jostailurik gabe. Bilketa arrakastatsua izan dela esan dute asanbladako kideek. Amasa-Villabonako Elkartasun Sarearen eskuetan utzi dituzte jostailuak eta hauek arduratuko dira herrian banaketa egiteaz. ATARIA

GABONETAN OPARITU BERTAKOA, OPARITU ATARIA

Oparitu urtebeteko Atariako harpidetza zuk nahi duzunari, eta jaso katilua edo koadernoan doan

Atarikide digitala: 55€. Atarikide harpidea: 83€
(produktuak agortu arte)

ataria

Lagundu Atarikide sarea zabaltzen

Egin zure erreserba abenduaren 22a baino lehen. 943 65 56 95 / atarikide@ataria.eus

Lehen mailako arretako egoera salatzen protestak

Eguerdian elkarretaratzea egingo dute Tolosako anbulatorioaren aurrean eta 18:00etan giza-kate ibiltaria Belatetik anbulatoriora

Erredakzioa

SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek elkarretaratzeak egingo dituzte gaur, osasun zentroetan. Tolosaldeari dagokionez 12:00etan bilduko dira Tolosako anbulatorioaren aurrean eta 18:00etan giza-kate batean parte hartzera deitu dituzte herritarrak. Sindikatuek esan dute Osakidetza lehen mailako arretaren egoera «jasanezina» dela bai langileentzat eta baita herritarrentzat ere. «Pandemiak are gehiago tenkatu du lehen ere hiltzorian zegoen asistentzia-mailaren egoera; izan ere, arazo-

ak egiturazkoak dira, eta egungo osasun-krisia baino askoz sakonagoak eta zaharragoak», esan dute. Dena den, pandemiak osasun zerbitzuaren kalitatea prekarizatu duela esan dute eta murrizketak aplikatzeko eta pazientek osasun publikora iristea zailtzeko aitzakia bezala erabili dutela salatu.

Gogoratu dute 2019an, pandemia aurretik, hiru greba egin zituztela langileek «inbertsio faltagatik, irisgarritasun murrizketengatik, zerbitzuen eskaintza ezagatik eta profesionalen eskasagatik». Ordutik egoerak okerrera egin duela esan dute eta

agerian geratu dela Osakidetza-ko arduradunen aurreikuspen falta.

«Horren guztiaren adibide ona da langileak seigarren olatuari aurre egiteko erabiltzen ari diren baliabide, antolaketa eta plangintza eza. Lehen olatua izan eta urte eta erdira, osasun zerbitzua urri, nekatua eta baliabiderik gabea dugu». Langileek nabarmendu dute %60 inguruko behin behinekotasun tasa dutela, urrian indartze kontratuak amaitu zituztela, arakatzailak erdira jaitsi zituztela eta herritarrek telefono bidezko arreta jasotzen dutela.



MUGIREN EGUTEGIA

Astelehenean hasi ziren Mugi Tolosa 2022ko egutegia banatzen Zerkausion, eta gaur izango da jasotzeko azken eguna, 10:30etik 12:00etara bitarte, Zerkausion bertan. Gaurtik aurrera, Udaten eta Usabal kiroldegian eskuratu ahal izango dira. Bosgarren urtea da Tolosako Udalak egitasmoko irteeren argazkiekin osatutako egutegia banatzen duela parte hartzaileen artean. Irailean hasi zen Mugi Tolosaren zortzigarren ikasturtea eta abendura bitarte hamabi irteera egin dituzte. Lau hilabeteetan, 468 adinekok hartu dute parte. ATARIA

Iradokizunak egin ahalko dira Tolosako zinemaren inguruan

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak «hainbat herri-tarren eskaerari erantzunez», zine programazioaren inguruko iradokizunak jasoko ditu. «Helburua da erabiltzaileen *feedback*-a edo iritzia jasotzea eskaintzan hobekuntzak eta egokitzapenak egin ahal izateko», esan dute udaletik.

Horretarako, galdetegi bat sortu dute zine ikusle diren tolosarrak egungo zine eskaintza baloratzeko aukera izan dezaten, eta

haien iradokizunak jasotzeko. Batez ere zine ikusleentzat zuzendutako galdetegia da, baina Tolosako zinemaren inguruko kezka duen edonork bete dezakeela zehaztu dute.

Galdetegia *online* bete daiteke euskaraz edo gaztelaniaz, eta baita aurrez aurre ere. Leidorren, kultur etxean eta liburutegian, urtarilaren 10era arte izango da horretarako aukera. Gune horietan paperean egongo dira galdetegiak eta iradokizunak jasotzeko kutxak jarri dituzte.

Antxon Elosegiren liburuarekin jasotako dirua Zutani rentzatzat

Erredakzioa Tolosa

Ekainean argitaratu zuten Joxemari Iturraldek Antxon Elosegiri buruz idatzitako *Desgranando una vida* liburua. Bada, salmentarekin jasotako dirua Zutani elkarteari eman diote, eta geratzen diren aleekin ere gauza bera egingo dute. Babel liburu-denda, Aranguren arropa denda, Topic, Zabala estankoa, Guki ekogunea, Soronea eta Ibarako estankoa eskuratu ahalko da.

GUTUNAK

Herriko Gaztetxea, herriko gazteentzat

Duela bi hilabete herriko gazte kuadrilla bat kaleratua izan zen Ibarako Gaztetxetik. Horrekin batera giltzak kendu zizkiguten.

Giltzak kendu izana salatzen pankarta bat jarri genuen herri-tarrei gure egoeraren berri emateko asmoz. Horren ostean mehatxuak jaso genituen gazte asanbladako kideen aldetik pankarta kentzeko esanaz. Besteak beste, pankartaren aitzakiarekin gazte asanbladetik kaleratu gintuzten.

Arazo honen jatorria gazte asanbladan jorratzen diren puntuetan datza, bertan mugimendu politiko zehatz bati loturiko

puntuak lantzen baitira. Gai arrotz horren aurrean mugimendu horri loturik ez gauden gazteok ez gara identifikatuak sentitzen eta ondorioz ez ginen asanbladetara azaltzen, baina gerora, eta Gaztetxearen dinamika barrutik eraldatzeko asmoz, asanbladetara azaltzen hasi ginen. Beraiek eraso zuzen gisa hartu zuten ordea, eta ekimen horren ondotik kaleratuak izan gara bigarren aldiz eta behin betiko betoa jarri digute.

Guk ez dugu besterik eskatzen: Gaztetxea bertako gazteentzat izatea, herriko gazte guztiek baitugu bertan parte hartzeko eskubidea. Herriko Gaztetxea, herriko gazte guztientzat.

Aratz Sarasola eta Beñat Rubiños eta Ibarako beste 10 gazte. Ibarra

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Tolosaldea IKT-k orain arteko emaitza onenak lortu ditu taldeka

Eskualdeko igeriketa taldeak Euskal Herriko Kopan lehen postua lortu du gizonezkoetan, hirugarrena emakumezkoetan eta bigarrena sailkapen orokorrean

Imanol Garcia Landa

Emaitza «bikainak» lortu dituzte Tolosaldea IKT taldeko igerilariak absolutu mailako Euskal Herriko Kopan. Hain justu, taldeka orain arteko emaitza onenak lortu dituzte, gizonezkoetan lehen postua lortuz, emakumezkoetan hirugarren eta sailkapen orokorrean bigarren eginez. «Lehen aldiz geratu gara gizonezkoetan lehen postuan, eta lehenengo aldia da Bidasoa taldearen aurretik beste talde bat geratu dela», esan du Joseba Zubeldia entrenatzaileak.

Gizonezkoetan, Tolosaldea IKT-ren atzetik Bidasoa eta Anaitasuna sailkatu ziren, eta emakumezkoetan Bidasoa, Getxo eta Tolosaldea IKT taldeek zuten podiuma. «Garrantzi handia ematen diogu txapelketa honi, taldea egiteko eta talde bezala indarra hartzeko garrantzitsua iruditzen zaigulako», esan du Zubeldiak. «Gure txapelketa kuttuna da eta oso pozik gaude». Aurreko urtean ez zen egin, iazkoa apirilean egin zen, eta orduan hirugarren egin zuen taldeak, gizonezkoetan zein emakumezkoetan postu bera lortuz.

Azken txapelketan sailkapen orokorrean bigarren postua lortzea «harro egoteko modukoa» dela gaineratu du Zubeldiak. «Gasteizko Judizmendi edota Iruñeko taldeen zein Bilboko taldeen aurretik geratzea zerbait ondo egiten ari garenaren seinale da». Igerilariak oso gustura geratu ziren egindakoarekin, eta Zubeldiak azaldu duenez, malko batzuk ere isuri ziren lortutakoaren ondorioz. «Igeriketa batez ere kirol indibiduala da, baina gure igerilariak gehien gozatzen dituzten emaitzak taldekako txapelketetakoak dira».

DISTANTZIA LUZEKOA

Iragan asteburuan beste txapelketa bat izan dute Tolosaldea IKT-ko igerilariak, Euskal Herriko Distantzia Luzeko Txapelke-



Euskal Herriko Kopan parte hartu zuen Tolosaldea IKT-ko taldea. TOLOSALDEA IKT

ta, Lasarten jokatu dena. Infantilek 2.000 metro libre estiloan egiten dituzte, eta junior eta absolutu mailakoek 3.000 metro. Iraupenezko proba da, eta hiru igerilarik parte hartu zuten, emaitza oso onak lortuz. Enaitz Goñik garaipena lortu zuen absolutu mailan zein junior 2 mailan, 33.15eko denborarekin bere

marka berria ezarriz. Mattin Zubeldiak infantil mailan irabazi egin zuen, 23.30eko denbora eginez, eta Nahia Garridok maila berean bigarren postua lortu zuen, 24.28 eginez. «Oso gustura gaude emaitzekin, igeri oso ondo egin zutelako eta denbora politak egin zituztelako», esan du Zubeldiak.



GAZTETXOENAK ERE

Tolosaldea IKT taldeak XXI. Paco Sanchez Saria antolatutako, eta aurreko larunbatean egin zen Usabal igerilekuan. Bertan 170 igerilari inguruk parte hartu zuten, sei klubetako alebin eta benjamin mailakoek, tartean, noski, etxeko taldeko kideek. Irudian, Tolosaldea IKT-ko alebin mailako igerilariak, Usabal igerilekuaren aurrean. TOLOSALDEA IKT



I. Egarri Trofeoa parte hartu zuten pultsulariak. DANOK DANENA

Danok Danena Gipuzkoako txapeldun taldeka

Erredakzioa Zizurkil

Danok Danena halterofilia taldea Gipuzkoako taldekako txapelduna izan da, emakumezkoetan zein gizonezkoetan. Abenduaren 11n jokatu zen txapelketa, Irungo Urazu frontoian, eta pultsulari hauek parte hartu zuten Danok Danenatik: emakumezkoetan, Elena Mangas, Naiara Madrid, Allison Rivera eta Amaia Blanco; eta gizonezkoetan, Ekaitz Kortajarena, Eki Lizaso, Mikel Alvarez, Jon Rodriguez, Pablo Ucero eta Andres Rubiños. Emakumezkoetan marka onena Elena Mangasek egin zuen eta gizonezkoetan Ekaitz Kortajarenak.

Bestalde, pasa den igandean, Zizurkilgo Kirol Astearen ba-

rruan, I. Egarri Trofeoa antolatutako taldeak Joxe Arregi plazan. Parte hartzaileak ondorengoak izan ziren: gaztetxoak, Mirari Maqueda eta Lier Erro; emakumezkoak, Elena Mangas, Allison Rivera eta Amaia Blanco; eta gizonezkoak, Ekaitz Kortajarena, Jon Rodriguez, David Rubio, Julen Larrauri eta Eki Lizaso. Urteak dira Zizurkilgo Joxe Arregi plazan txapelketarik egin gabe zela eta Danok Danenatik eskerrik eman dizkiote udalari igandeko ekitaldia antolatutako ahal izateagatik. Bestalde, Egarri tabernari ere taldeak eskerrik beroenak eskaini dizkio, «txapelketa aurrera eramateko egin duen ahaleginagatik eta ondoren bazkari eder batetara gonbidatu izanagatik».

Tolosako Kirol Gala egingo dute gaur Leidor aretoan

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak herriko kirolari, kirol talde eta elkarten lana balioan jarri eta izandako lorpenengatik errekonozimendua egin nahi die. Horretarako, gaur, 19:00etatik aurrera, Tolosako Kirol Galaren edizio berri bat egingo dute Leidor Aretoan. Tolosako kirol elkarteek egiten duten lana goraipatzeko gala izango

dela aurtengoa ere azaldu dute udaletik.

Aurtengorako ere Tolosako kirol elkarteek beren hautagaiak proposatu dituzte, bakoitzaren lorpenak azalduz. Proposamenak kontuan hartuz, kirol elkarteek eta herriko beste hainbat eragilek bozkatu dute nortzuk diren kirolari onenaren sarirako eta etorkizuneko kirolari aipagarriaren sarirako kirolariak.



ASTEAZKENA, 2021EKO ABENDUAK 22
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

BABESTUTAKO EDUKIA

‘Euskal Pilotak’ eta trufak, Gabonetarako gozoki onenak

Aspaldiko gozogintza tradizioari eusten dio Rafa Gorrotxategi; aurten, artisau turroiaz gain, produktu eta zapore berriak sortu ditu, datozen egun berezietarako

Azken asteetako egunak atsedeenik gabekoak izaten ari dira Rafa Gorrotxategi gozogilearen lantegian. Aitortu duenez, herritar asko ari da inguratzen «azken uneko erosketak» egitera; «mugimendu handia ari gara izaten». Gabonen aurretik, ordea, bertan behera utzi behar izan dituzte aurreikusita zituzten enpresetako bazkari zein afariak, baita kotiloi ugari ere. Hori dela eta, erabat aldatu zaie lanerako modua.

Datozen egunei begira, jakitun da herritar askok otordu xumeak egingo dituztela, iaz bezala. Horrek, ordea, «eragin positiboa» izan dezakeela azaldu du: «Iaz, oso ondo egin genuen lan antzeko egoeran. Aurten, gainera, beste urte batzuetako salmenta kopuruak gaintu ditugu».

Askotarikoa da Rafa Gorrotxategiaren eskaintza; mota guztietako gozoak dituzte salgai. Urtero,

gainera produktu berriak egiten ditu. Aurten, hiru eskaintza berri dituzte: batetik, Venezuelako Diplomatico Reserva Exclusiva ronarekin egindako trufak, hiru zaporetakoak; bestetik, *Euskal Pilotak* izeneko bonboiak, pilota formakoak eta sei zaporetakoak; eta azkenik, 300 gramotako turroi zorroa. «Ez da lau zatitan banatutako turroi handi bat, 75 gramotako lau turroi txiki biltzen dituen baizik». Lau zaporetakoak dira: armagnac, txokolata rubiarekin, mandarina eta jogurta. «Otordu txikiatarako ezin aproposagoa da», gaineratu du.

Gorrotxategi baiezatu duenez, orain arte «bikaina» izan da produktu horiek izandako erantzuna. Enpresa ezberdinetako Gabonetako produktu sortak edo saskiak osatzeko, *Euskal Pilotak* eta trufak ugari saldu direla esan du. «Orain, berriz, herritar



Armintz Gorrotxategi (Rafa Gorrotxategiaren semea), aurtengo produktu berriei, Usabal Industriaguneko dendan. J.A.

soilak turroien aldeko apustua egiten ari dira». Hiru eskaintza horiez gain, produktu ezberdinez osatutako sortak ere badiutuzte. «Bezero ugari zer erosi jakinda etortzen da etxetik, eta norbaitek hala nahi izanez gero, neurrira egindako sortak hartzeko aukera ere badago».

Urteek aurrera egin ahala, turroietarako joera nabarmen aldatu dela adierazi du gozogileak. «Garai batean, herritar ugari inguratzen ziren jaki preziatu hau eskatuz, kanpora eraman nahi izaten zutelako. Orduan hasi ginen nazioartera zabaltzen».

Tolosarrek turroi artisaua egiten dute. «Lehen, arrautza gorringoarekin eta mazapanarekin egindakoa soilik zegoen. Orain, berriz, esnegaina, txokolata eta almendra dituzte oinarrian. Bertako produktuak erabiliz, osagai gutxirekin kalitatezko elikagai bat egin daitekeenaren adibide garbia da». Guztira, hamabost turroi ezberdin egiten dituzte, era guztietako zaporetakoak. «Ondo dago egunero gauza berdina egitea, eta gelditu gabe egiten baduzu gainera, poztu egiten zaitu, ondo saltzen den seinale izaten delako. Hala ere,

sorkuntza da gure ofizioak duen alderdirik ederrena; beti dago zerbait berria egiteko aukera».

RAFA GORROTXATEGI

Dendak. Korreo kalea 17 (Malumbres zena), eta Usabal Industriagunea 14, Tolosan; eta Narrika Kalea 13, Donostian.

Webgunea. rafagorrotxategi.eus

Twitter. @gorrotxategi1

Facebook. Rafa Gorrotxategi

Instagram. @rafagorrotxategi1680

Telefonoa. 943 890 306.

E-mail. info@rafagorrotxategi.eus

Bidalketak. Penintsula osora, doan.



RAFA GORROTXATEGIAREN ARTISAU TURROI

943 89 03 06 | www.rafagorrotxategi.eus



Tolosan salgai:
Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Denda:
Korreo Kalea, 17
(Malumbres jostun denda)